

Merkataritza Sektorea

AHMI 2016ko abuztua: Urte-arterko Δ : %0,4; Δ Metatua: %0,5

TMI 2016ko III. hiruhilekoa: Hiruhileko arteko Δ : %0,1; Urtetik urterako Δ : %2,8

Txikizkako merkataritzaren salmentek %0,1 eskasa egin dute gora hirugarren hiruhilekoan erregaien beherazko bilakaeraren ondorioz, %3,2 h/h. Zerbitzугuneak kontutan hartu gabe, ordea, hazkundera %0,9koa da.

Txikizkako merkataritzaren salmentek %0,1h/h eskasa egin dute gora **hirugarren hiruhilekoan**, hirugarren hiruhilekoa jarraian datu positiboak erakusten (%+2,2h/h 16ko.II.h.an eta %+1,5 16ko.I.h.an). Hazkundera, **elikagaien salmentei** zor zaie bereziki, %+1,5h/h, eta neurri txikiagoan **elikagaiak ez diren gainerako produktuen salmentei**, %+0,2h/h. **Erregaien salmentak, ordea, %3,2h/h** murriztu dira. Hau hola, **zerbitzугuneak kanpoan utzita**, txikizkako merkataritzaren salmenten indizeak **%0,9h/h** hazi da.

Aurreko urtearekiko hazkundera **%+2,8u/u** eta **%+3,5u/u**-koa da, **zerbitzугuneak kontutan harturik eta kontutan hartu gabe** hurrenez hurren. Hamar eta zazpi hiruhilekoz jarraian datu positiboak erregistratu dituzte. Kasu honetan ere, elikagaien salmentek, %+5,5u/u (bigarren hiruhilekoa jarraian gorantz), eta elikagaiak ez diren gainerako produktuen salmentak hazi dira, %+1,9u/u (hamar hiruhileko jarraian gorantz), aldiz, erregaien salmentak, %4,6u/u murriztu dira.

Horrela, **lehenengo hiru hiruhilekotan** txikizkako salmentek **%+2,7ko** hazkundera metatu dute aurreko urteko aldi berarekiko, **%+3,1 zerbitzугuneak kontutan hartu gabe** (%+2,2 eta %+2,3 16ko.III. h.). **Elikagaien salmentek %+2,2ko** hazkundera metatu dute eta **%+4,1koa elikagaiak ez diren gainerako produktuenek**, baina **%-1,9** murriztu dira **erregaienek**.

Enplegua, bestalde, %0,2h/h egin du gora **hirugarren hiruhilekoan**, hau izanik laugarren hiruhilekoa jarraian goranzgo bilakaerarekin. Elikagaien saltokitan %+2,0h/h egin du gora, eta %+1,5h/h zerbitzугunetan, baina elikagaiak ez diren produktuen saltokietan %-0,8 murriztu da. Honeki, **lehenengo hiru hiruhilekotan** enpleguak **%+2,1eko** hazkundera metatu du aurreko urterekiko.

Azalera handietako salmenten indizeak, abuztuan %0,5 egin du gora **aurreko hilabetearekiko**, baina orduan %-2,4ko jaitsiera pairatu zuen. Elikagaien salmentak hazi dira, %2,3hil./hil., baina %-1,1 hil./hil murriztu dira gainerako produktuenak.

Aurreko urteko hilabete berdinarekin alderatuz, ordea, salmentak **%-0,4** jaitsi dira, laugarren hilabetea jarraian beherazko bilakaera erakusten. %-2,7 jaitsi dira elikagaien salmentak, baina gainerako produktuenak %+1,9 igoa dira.


Hau guztiarekin, **abuztura arte¹** azalera handietako salmentak **%-0,5eko** jaitsiera metatu dute aurreko urtearekiko (%-0,1 orduan).

Kasu honetan **%-4,3** murriztu dira **elikagaien salmentak**. **Gainerako produktuen salmentak, ordea, %+3,6** igo dira.

Enpleguari dagokionez, **abuztuan %0,3** egin du gora **aurreko hilabetearekiko** eta **%+0,7 aurreko urtearekiko**. Honekin, urteko **lehenago zortzi hilabeteetan %+1,7ko** hazkundera metatu du aurreko urteko aldi berdinarekiko (%+0,3 orduan).


Azalera handietako salmentak

Aldaketarik gabeko prezioak 2010 oinarria = 100



Txikizkako merkataritzaren salmentak

Aldaketarik gabeko prezioak 2010 oinarria = 100



¹ Azken datu erabilgarriak. EUSTATEk bertan behera utzi du indize honen argitalpena metodologia berrikusten duen bitartean.